

«LEZOKO HAURREN IZENAK 1990-1993 ARTEAN»

Aurretik antzeko zer bait egin nuen 1980-1989 artean Lezon jaiotako haurren izenekin, eta baita argitaratu LEZO -6an ere. (ikusi: «Lezoko haurren izenak 1980-1989 artean»/LEZO -6/ 49-55 orr.) Aipaturiko artikuluan 1980-1989 urteren artean —biak barne— jaiotako 707 haurren izenak aztertu eta banatu egin nituen erdal eta euskal izenen artean. Eta orduan ikusi ahal izan genuen bezala, nahiz eta zerrendarik luzeena, eta askoz gainera, euskal izenena izan, erdal izenena ez zen makala. Lehendabiziko banaketa hau (euskal/erdal izenak) egin ondoren eta hobeto sailkatzeari heldu nahian izen guztiak beste bi arlotan banatu nituen: emakumezkoenak alde batetik eta gizonezkoenak bestaldetik. Bigarren banaketa hau, erdal izenei dagokienez, ondo burutu bazen ere, euskal izenekin akats galanta egin nuen, ez bait nuen kontuan hartu, euskal izenen arauak eta erdaldunenak arront ezberdinak direla. Erdal izenekin seksuaren kontua ongi bereizten den bitartean (gehienetan behintzat), euskal izenekin ez bait gauza bera gertatzen, asko eta askok bietarako balio baitute (toponimia usainekoek gehienbat). Eta honela, errealitate honetaz erreparatu gabe, mutikotzat jo nuen neska zena, eta alderantziz. Honela gertatu zen adibidez: AMAIUR, IRAITZ, ENERITZ,... eta bestelako izenekin. Barka idazue!

Oraingo artikulua honetan, 1990. urtetik 1993.eko iraila arte (hilabete hau barne) Lezon jaiotako 132 haurren, izenez luzatuko natzaizue. Aipatu beharra dago euskal—erdal izenen arteko proportzioa izugarri aldatu dela, gehiengo absolutoa euskal izenen alde baitago (120), erdal izenak 12ra jeitsi diren bitartean. Baina izen bakoitzari dagokion kopurua edo maiztasuna eman aurretik, eman nahi dizuet aipatutako denboraldian jaiotako lezoarren izen-abizenen zerrenda, beraiek egingo baitute herri honen etorkizuna.

1.990

Aingeru Martiarena Pichel
Itsaso Beunza Goñi
Oihane Etxart Santamaria
Alexander Lopetegi Matxin
Julen Lopetegi Matxin
Ion Salaberria Txoperena
Itziar Irastorza Elorza
Soiartze Mitxelena Mujika
Oihana San Sebastian Etxegarai
Iker Aranburu Duran
Tania Otegi Legorburu

Erik Redondo Moran
Egoitz Goikoetxea Soto
Aitor Rodriguez Berasarte
Cristina Unanue Etxebarria
Garazi Lekuona Esnaola
Izaro Garmendia Iruretagoiena
Zuriñe Urbieta Lekuona
Nagore Barbado Elissalt
Maddi Etxebeste Ormazabal
Asier Oteiza Olaziregi
Oier Izulain Alejos

1991

Iker Lerida San Sebastian
Elur Telletxea Garmendia
Maialen Losa Rodriguez
Eneritz Arruti Osanbela
Guadalupe Mancha Juez
Javier Roma Nuñez
Leire Mendizabal Berasarte
Aratz Cuña Etxeberria
Maidar Ugarte Estevez
Iraitz Ugalde Pikabea
Ander Iñarra Olaziregi
Inaxio Lekuona Olaizola
Borja Mintegia Galende
Miren Tarragona Perez
Julen Salaberria Treku
Aitor Meneses Urdangarin

Asier Sistiaga Guridi
Maidar Aristizabal Lopetegi
Nahikari Gaztelumendi Cuesta
Ibai Redondo Perez
Nahikari Vizuite Aldabe
Fernando Jon Pikabea Diaz
Jennifer Castillo Matias
Mikel Rios Lojo
Ioritz Garmendia Oiartzabal
Etxahun Aurkenerena Arbelaiz
Olaia Villarubia Mitxelena
Ainhoa Gonzalez Palacios
Naiara Sanchez Hidalgo
Nahikari Sanchez Hidalgo
Unai Martiarena Pichel
Iñaki Larrañaga Kerejeta

1992

Leire Aranburu de la Cal
Julen Lujanbio Olasagasti
Udane Mitxelena Bandres
Ekiñe San Sebastian Etxegarai
Irati Buldain Molina
Nasir Cintero Viyuela
Alazne Askasibar Fdez.-Retana
Ibon Taberna Karrera
Haizea Olaziregi Garmendia
Aritz Frutos Payo
Elur Etxebeste Jauregi
Naroa Torres Generelo
Omar Ugalde del Rio
Maialen Toval Agirrezabala
Haizea Zabalo Gil
Alain Roman Matias
Ibai Karrera Arozena
Maidar Garzia del Barco

Ane Olaizola Barzena
Maialen Larrea Zamora
Mikel Caceres Asenjo
Unai Estal Fuentetaja
Iraitz Etxeberria Irigoien
Yaiza Intxausti Brandariz
Iñaki Sarasua Lujanbio
Alicia Manjarres Rasero
Enara Mujika Gil
Iñaki Makazaga de la Torre
Aitor Makazaga de la Torre
Tamara Sanchez Sanchez
Andoni Cazorla Vicente
Lander Galparsoro Aristimuño
Nerea Marco Garmendia
Oihane Saborido Martinez
Gurutz Areitio Amiano

1993 iraila arte-barne

Jagoba Figuerola Casal
Aitor Aranburu Saizar
Unai Arruti Arrieta
Estibaliz Moran Hidalgo
Beñat Lopetegi Almena
Jon Erauskin Arruti
Amaiur Perez Espina
Unai Elizegi Telletxea
Lorea Etxart Camara
Nerea Yarzabal Barandika
Igor Idigoras Zabala
Javier Gomez Gomez
Ane Viejo Mitxelena
Sarai Gomez Garzia
Eneritz Balda Aparicio
Urtzi Labordeta Monreal
Ane Elizegi Telletxea
Igor Pariente Arruabarrena
Garikoitz Sagarzazu Urresti
Jon Arizmendi Aiestaran
Yaiza Herrera Palma

Urtzi Arruti Conde
Unai Dominguez Fernandez
Oihana Rojas Formoso
Jokin Berridi Antza
Irati Etxezurieta Zabaleta
Beñat Mariezkurrena Saizar
Ander Goitia Rios
Pedro Fernandez Villar
Asier Alvarez Rodriguez
Jon Lander Sarasola Martinez
Eneko Arzadun Bermejo
Eneritz Olaizola Legorburu
Maialen Correa Varela
Irlentz Quiñones Garzia
Estitxu Garmendia Iruretagoiena
Irati Formoso Herrero
Jon Toribio Isasi
Ivan Alonso Freire
Asier Badiola Prieto
Irati Leoz Pac
Amaia Esnal Fuentetaja



Lezoko Ihauteriak (asteartebeltz) Eskoletako haurrak beltzez jantzita, Trapujaleren Herio kalejirara doaz.

Euskal eta erdal izenen maiztasun taulak egiteko, zenbait puntutan nire kezkak eduki nituen, ez bait beti horren erraza izen bat erdalduntzat edo euskalduntzat jotzea, bien arteko muga ez bait horren gardena. Hori dela eta kanpotik etorritako hainbat izen euskalduntzat jo ditut, gure artean daukaten historial luzea kontuan harturik. Hauxe izan da ERIK, GUADALUPE, OMAR eta ALAIN izenen kasua. Era berean euskalduntzat jo dut FERNANDO JON izen konposatua, nahiz eta horren garbi ez egon. Eta erdalduntzat jo ditut TANIA, BORJA, NASIR,... izenak, gure artean ez baitute tradizio haundirik eduki. Osora, lehen esan dudana bezala, 120 euskaldun eta 12 erdaldun. Lezo herriaren euskal nortasunaren seinale. Euskal izenen artean ez dut emakumezkoen eta gizonezkoen artean banaketarik egingo, horietako askok bi seksuetarako balio bait dute. Erdaldunekin berriz bai, bien arteko bereizketa nabarmen geratzen baita.

EUSKARAZKO IZENAK (1)

IZENA	Zenbat aldiz	IZENA	Zenbat aldiz
Maialen	5	Ibai	2
Unai	5	Mikel	2
Oihane/Oihana	4	Haizea	2
Irati	4	Nerea	2
Inaxio/Iñaki	4	Estibaliz/Estitxu	2
Jon/Ion	4	Igor	2
Aitor	4	Urtzi	2
Asier	4	Beñat	2
Julen	3	Aingeru	1
Eneritz	3	Itsaso	1
Maider	3	Alexander	1
Nahikari	3	Itziar	1
Ane	3	Soiartze	1
Iker	2	Erik	1
Elur	2	Egoitz	1
Leire	2	Garazi	1
Iraitz	2	Izaro	1
Ander	2	Zuriñe	1

EUSKARAZKO IZENAK (2)

IZENA	Zenbat aldiz	IZENA	Zenbat aldiz
Nagore	1	Naroa	1
Maddi	1	Alain	1
Oier	1	Enara	1
Guadalupe	1	Andoni	1
Aratz	1	Lander	1
Miren	1	Gurutz	1
Fernando Jon	1	Jagoba	1
Ioritz	1	Amaiur	1
Etxahun	1	Lorea	1
Olaia	1	Sarai	1
Ainhua	1	Garikoitz	1
Naiara	1	Jokin	1
Udane	1	Jon Lander	1
Ekiñe	1	Eneko	1
Alazne	1	Irlentz	1
Ibon	1	Amaia	1
Aritz	1		

ERDARAZKO IZENAK

GIZONEZKOAK		EMAKUMEZKOAK	
IZENA	zenbat aldiz	IZENA	zenbat aldiz
Javier	2	Yaiza	2
Borja	1	Tania	1
Nasir	1	Cristina	1
Pedro	1	Jennifer	1
Ivan	1	Alicia	1
		Tamara	1

*Lezon,
haurrak eta
erraldoiak lagun
haundiak dira.*



KONKLUIISO GISA

Badirudi Lezo euskalduntzen ari zaigula izenez eta izanez, egunetik egunera gehiago baitira euskaldunak gure herrian, haur eta gazte arloan gehienbat, eta asko baitira ere, lezoar euskaltegia den Oroitzene izenekora hurbiltzen diren helduak, batzuk beren buruan euskalduntzera, alfabetatzera besteak. Garbi dago ba, Lezok euskaldun nahi duela izan, euskaraz nahi duela bizi. Euskal izenen aldetik oso barietate haundia erabiltzen dugu gure herrian, ez baitira asko errepikatzen direnak. Aipatzekoa da ere, jendeari izen laburrak —hitz bakarrekoak— gustatzen zaizkiola, 132 izenen artean bi bakar bakarrik baitira konposatu: FERNANDO JON eta JON LANDER, beste guztiak bakunak direlarik. Erdal izenekin, gizonaekoei dagozkienak guztiz arrauntak diren bitartean (NASIR ezik), emakumezkoenak guztiz bitxi eta urrutikoak direla esan beharra dago: YAIZA, TANIA, TAMARA, JENNIFER (CRISTINA eta ALICIA ezik). Oso izen exotikoak benetan. Eta bukatzeko nire besarkada luzatu nahi diet haur hauen gurasoei, Euskal Herri zaharkitu honetan guztiz atipikoa izan arren, Lezo herria biztanle gazteez gainezkaturik baitago. Etorkizun ona eduki dezagun danok!

KARLOS BARRENTSORO